

Horma zuriak

Oier Quincoces Blas





IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

Saritutako kontakizuna
euskarazko modalitatea
19-25 urte

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala.

Gazteria Zerbitzua. 2019

Diseinua eta maketazioa: Iñaki Marquínez / io grafix

Ilustrazioak: Laura Arrue

Inprenta: Gráficas Irudi

ESTASIA

“Ez dut uste gure grinarik handiena bizitzaren zentzua topatzea denik”, esan zuen Joseph Campbell mitologoak, “benetan bilatzen duguna bizitza hori esperimentatzea da, bizirik gaudela sentitzea. Maila fisikoan ditugun esperientzia horiek geure barneko errealitatean oihartzuna izan dezaten. Funtsean, bizirik egotearen estasia sentitzea da nahi duguna.”

Bizirik egotearen estasi hori sentitzeko hamaika bide daude. Maitasuna, sexua, drogak, erlijioa, borrokak, bidaiak, muturreko kirolak, artea... Hamaika modu, bizirik sentitzeko.

Zer esan beraz literaturari buruz. Zergatik tematzen gara irakurtzen, idazten. Bada, horregatik: bizitza topatzen dugulako hitzen artean, eta hor gaudelako gu, bizitza horren erdigunean, sentitu dezakegu eta harrigarria da. Orduan egia zen! Bizirik gaude! Estasia!

Katixa Agirre

Horma zuriak

Oier Quincoces Blas

Inork ez zuen ezagutzen, baina denen hitzetan zebilen. Batez ere istripuaren ondoren. Bi auto. Bata ezaguna eta arrotza bestea. Bata zuhaitz batetik zintzilik, urkabeen balego bezala. Bestearen arrastorik ere ez. Bera autoaren barruan zegoen, soinekoa odoletan blai eta bolantea bere ezkerreko hanka zanpatzen. Errepide izoztuaren gainean, kristal puskak, eskularru beltzak eta bero-
kia. Egunsentiarekin batera ohartu ziren inguruko biztanleak jazotakoaz.

Esnatu zenerako ohean zegoen. Izara ezin zuriagoak zituen ohe mehar batean. Inguruan zituen hormak ere zuriak ziren, gortinak bezala. Orduan, kolore bera zeukan atea ireki eta emakume gazte bat sartu zen, nola ez, zuriz jantzita. Leihua ireki eta zauriak aztertu zizkion. Hankan zeukan larriena. Oraindik ere egun asko iraun beharko zituen han guztiz sendatzeko. Behin bukatuta eta

aterantz zihoala, beragana itzuli, aurpegia ferekatu eta negar-zotinka joan zen medikuaren bila.

Hau zahar samarra zen. Ilea aspaldi urdindu zitzaion ziur aski eta nekearen orbaina zeraman begiradan. Mantal txuriaren poltsikotik txostena atera eta gaixoa behatzen hasi zen agertzen ziren datuak zuzenak zirela egiaztatzeko. Gero ohearen inguruan ibili zen bere parean zegoen aulkian eseri arte. Hitz egiten hasi zen. Berehalako hartan emakumeak ez zekien norekin ari zen hizketan. Ez zion ez berari, ez zuriz jantzitako gazteari begiratzen. Hitzak eulien antzera ateratzen ziren bere ahotik. Zarata baino ez. Ulertzen ez zuen olerki arrotz bat. Erizaina segituan ohartu zen eta, behin medikua isilduta, emakumearen arreta bereganatu zuen. Keinu eskas bat baino ez zuen behar izan. Eskua sabelera eraman eta begirada itzali zitzaion. Errazegia izan zen. Zarata berriro. Non dago?

Ez zuen leihoa aurkitzen. Medikuak eguzkia ahoan sartu eta gelatik atera zen erizainarekin batera. —Utzi dezagun bakarrik—. Hormaren bestaldean jaioberrien garrasiak entzuten ziren. Hankak ez zion jada minik ematen.

Egun batzuen buruan bere kabuz mugitzeko gai izan zen. Noiz behinka, erizainek behartuta, osteratxoak ematen zituen korridorean zehar. Lorategia ez zuen atsegin. Autoen burrunba entzuten zen eta irudiak gupidarik gabe pilatzen ziren bere buruan. Gorputzak talka egiten zuen berriz. Konturatu zirenerako lurrean zegoen dardar, kristalez inguratuta, ahotik adurra zeriola. —Barrura! Barrura!—. Ez zuten berriro eraikinetik atera. Gelatik sarreraraino eta buelta. Horietako batean liburutegia aurkitu zuen. Beste lau horma zuri. Txikia zen baina zerbait bazen behintzat. Lehenengo aldiz egun horietan isiltasuna aurkitu



zuen, bere lagun zaharra. Ez zuen lagun zaharrek egiten duten moduan agurtu, ordea. Ez zegoen inor, bertako arduraduna izan ezik. Irakurtzen ari zen edo horren plantak egiten. Emakumea apalategiak behatzen hasi zen, liburuak ukitzen, azal deigarrienak zituztenak aukeratzen. Ez zituen izenburuak ere ikusi. Hori eginda, herren zegoen mahai batean eseri eta bat ireki zuen. Beste bat. Eta beste bat. Azkena. Hitzik ez. Hizkiak baino ez... Bata bestearen ondoren. Elkarrekin korapilatzen. Igurzten eta zorrozten. Orriz orri. Begiz begi. Ziztadaz ziztada. Mahai gainean aurkitu zuten makurtuta. Liburuak lurrean. Airean liztorren soinua entzuten zen.

Ubeldutako azala argituz joan zen eta gorputzeko zauriak sendatzear zeuden. Hitzik ez oster. Keinuen bidez komunikatzen zen munduarekin. Sabaiari begira igarotzen zituen egunak. Sabela

laztantzen eta doinu urrunak abesten. Erizainen bisitek urduri jartzen zuten. Bazetorren lehenengo gosariarekin. —Egun on—. Hortxe bigarrena azterketa egiteko —Primeran—. Hirugarrena bazkariarekin eta beranduago askariarekin —Ez gero platerean ezer utzi—. Azkenik laugarrena... Ala lehengoa zen? —Gabon—. Zer esan nahi ote zuten? Irribarre zital horiekin... Bere kontura barrezka. Ez zeukaten aurpegirik... Aho luze bat bakarrik. Hortzak besterik ez...

Handik aste batera ospitaletik joan zen. Etxera eramango zuen autoa bere zain zegoen kanpoan. Atarian aurpegirik gabeko emakume zurbilak bera agurtzen. Leihatilatik begira bere gela ikusi zuen azkenekoz. Hiria hutsik zegoen. Etxean egoteko ordua zen agian. Kale guztiak berdinak ziren: espaloi zikinak, erakusleiho zatarrak eta hezurrezko zeru-orratzak ordua ematen. Ez zuen kolore

berririk ikusten. Bestalde, gidariak ez zuen solasaldi bat hasteko asmorik erakutsi eta eskertzekoa zen. Musikarik ere ez. Semaforo itzalien bakardadea zen ikuspegi samurrena une hartan. Erortzen hasia zen elurra baino ez zuten lagun.

Autobidean sartu eta berehala odola ikusi zuen. Negu gorria. Ez zegoen zuhaitzik. Bihurgune hori hartu zuen berriz ere. Behin eta berriro. Ez zen inoiz amaitzen. Jaio eta hil gauza bera ziren errepidean. Beti ere hor zeuden bere zain berokia eta eskularru beltzak...

Esnatu zenean herrira iristen ari ziren. Herritarrak beren etxeetatik atera ziren, egin beharrak alde batera utzi eta autoaren ibilbidea jarraitu zuten. Sekretuek bizi urria zuten herrixka horietako bat zen. Txutxu-mutxuak entzuten hasi ziren. «Bera izango da. Norbaitek ikusi al dio aurpegia?» «Antzu

geratu omen da». «Gizajoa...» «Ez al dauka familiarik?» «Ez dakit. Nik ez dut inoiz berarekin hitz egin». «Koittadua...» Kuxkuxeroenek autoa aurreratu zuten iruzkinen zehaztasuna hobetzeko. Bere etxola begiztatu zuenean pozaren antzeko zerbait sentitu zuen. Autotik jaitsi eta aterantz abiatu zen. Hitzak soinekoan behera irristatzen ziren lokatza bezala. Auzotarren galderen helburu izan baino lehen sartu egin zen.

Iskanbila amatatzea minutu batzuen kontua izan zen. Etxeko harri guztiek begiak zituzten, ordea. Bere ateen ez zuten ezer gordetzen: ez argazkirik, ez aulkirik, ez izenik. Egarri zen. Armiamak zituen eztarrian, ahots kordak estutzen. Halako batean eskuak ahorantz eraman eta, goragaleak jota, oka egin zuen. Botatako guztiaren artean beretzat ezaguna zen zerbait aurkitu eta poltsikoan gorde zuen.

Lehenago edo beranduago dena ahaztu zen. Ez zuten berriro ikusi. Inork ez zion idazten, inork ez zuen berari buruz hitz egiten edota irakurtzen. Zurrumurruen arabera, bera itzuli eta hurrengo egunean norbaitek ikusi ei zuen etxolatik ateratzen. Goiza eta gaua bereizten ez ziren egun horietako bat zen. Azkar zihoan arren, lekukoaren jakinminak ez zuen bere arrastoa galdu. Ezerezaren erdian gelditu zen, itzalik gabeko larre batean. Belauniko jarri, belarra errotik atera eta lurra zulatzeari ekin zion. Eskuetatik odola isurtzen hasi zenean, gelditu eta poltsikotik hezurtxo batzuk atera zituen. Kume batenak izango ziren ziur asko. Hauek birrindu eta lortutako hautsa zuloan sartu zuen. Ondoren, bere gorputzarekin estali eta otoitz bat zirudien zerbait zezeldu zuen. Hitzik



ez. Hitzak ezin dira lurperatu. Hondar apur bat eta larruazal hutsala, noiz edo noiz sugeek uzten duten horietako bat. Ozipin koloreko eguzki goibela eta inork ulertuko ez zuen agurra. Zer beste idatz zezakeen lau horma zuri hauetan?



www.vitoria-gasteiz.org/gaztehitzak

